

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2022ko azaroak 25 · 1249 zenbakia



## HANKAMOTXAK BERTSOTARAKO LAGUN BILA

eslaban

eslaban.com  
T. 943 820 407

Igogailuak Fatxadak Teilatu berritzeak eta aldaketak  
Erreformak Proiektuak Konponketa bereziak  
Lantokientzako lan bereziak Eraikinen mantentzea



Gaur  
gure **kontu.**



[WWW.ONGIETORRIBAR.COM](http://WWW.ONGIETORRIBAR.COM)

# Jarraitu gaitzazu!



Hankamotxak bertso-eskolako lagunek dakiten modurik onenean egin dute bertso-eskolan parte hartzeko gonbidapena, bertsotan.



Bizitegi-egoera larrian dauden pertsonentzako neguko dispositiboak dago martxan Karmen kalean, Karmeldarren elizaren lokaletan. Etxerik gabekoentzat 14 plaza eskaintzen dituzte bertan eta, egoera klimatologiko txarretan, Debarbarreneko edozein udalerrik eta/edo dispositiboko teknikariek aktibatu ahal izango dituzte plazak.



@etakitto



etakitto.eus



#### ARGITARATZAILERA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILERA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Emaitzen fidagarritasuna bermatzeko asmoz

Beti Eibar - Eibar Forever Akziodunen Elkartetik hilaren 17an egindako Eibarko Akziodunen Batzarreko gai zerrendako puntuen bozketaren emaitzen balorazioa partekatu nahi dugu.

Emaitzak aurkeztu ziren unean bertan akats larriak antzeman genituen ezezko botoen ehunekoen zerbaketan, gure elkarteak Kontseiluaren proposamenak babestu ez zituen puntuetan. Egun horretan bertan, gertakaria nahikoa larria zela eta lehenbailehen aztertu behar genuela iritzita, Kontseiluarekin harremanetan jarri ginen, datuak berrikusteko eskatzeko. Hala ere, Deportivo Alavesen aurka jokatu behar genuen partida garrantzitsua kontuan hartuta, ez genuen ernegatzeko girorik sortu nahi izan, eta ez genuen gure erreklamazioa publiko egin, baina gure bazkideei jakinarazi genien.

Klubari behin baino gehiagotan errepikatu ondoren, azaroaren 21ean Kontseiluak sare sozialetan argitaratu zituen Elkarte honek eskatutako berrikuspenaren emaitzak. Batzorde berean aurkeztutako datuen eta behin betikoen arteko aldea funtsezkoa da. Sailburu bakoitzaren berrautaketari eta horien kopurua 11 kidetan finkatzeari emandako ezezko botoen ehunkoa bikoitza baino gehiago da zuzenketa horren ondoren.

Hurrengo bozketen emaitzen fidagarritasuna bermatzeko, akatsaren eragilea izan omen den sistema informatikoa ikuskatzea eskatzen dugu. Eta Kontseiluak Batzordean eskatu zitzaigun zorroztasun eta errespetu berarekin joka dezala.

**Beti Eibar - Eibar Forever**

## Dirua soberan, baina erabakitze eskubiderik ez

20 milioi Euroatik, 5 milioi Eusko Jaurlaritzatik, beste 4 milioi Espainiako Estatutik. Ez gaude, ba, krisian? Osakidetzan murrizketak, erregaiei, elikagaien eta energiaren prezioak zerutik... Gure bizi-kalitatea ez da bermatzen, baina eraikuntza faraonikoetarako dirua soberan da.

20.000.000€ auzotik pasatzen ez den kale berri bat egiteko: 6. pisu baten altueran eta mendi ondotik bizilagunak lurperatuz, Eibarko ekialdea ikusezin bihurtuko duen estaldura. Inori galdetu gabe, armairutik atera eta emandako hitza jan dutenen eskutik, betiko enpresari eta politikoen poltsikoak betetzeko.

5.000.000€ Gabilondo eraikina birgaitzeko: proiekturik gabe, bizilagunen partaidetzarik gabe, Eusko Jaurlaritzak 4.980.125€ko dirulaguntza eman dio alkateari. Honek 2.750.000€tan lurzorua erosi du, jakinda hiru urtetan expropiatua egongo dela trenbidearen estaldurarako obretan.

4.000.000€ EH-Bilduk eskatuta: bizilagunen partaidetzarik gabe, hormigoizko estaldura onartu eta auzoa birgaitzeko.

Azaroaren 8ko auzo-bileran garbitasun faltaz, degradazioaz, trafikoaz, estalduraren zentzugabekeriak eta partaidetzaren beharraz aritu ginen bizilagunak. Alkatearen errespetu falta jasan eta gero, esandako egi bakanetako batekin agurtuko naiz: "Hemen gaudenak ongia egiteko gaude".

Bere lagunen ongiari ari zen, ordea: dirua soberan bai, baina herriak erabakitze eskubiderik ez.

**Leire Troitiño Berasategi**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ON BILLA, ON BILLA, BONBILLA** → Onena hartu guran, askotan txarrarekin geratu beharra izaten dela adierazten du. "On billa, on billa, bonbilla, esaten dan moduan, eta hor, mutil zahar geldittu da".



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 25</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>ZAPATUA 26</b>
<b>EGUNEZ   Iraundegi</b> (Calbeton, 19)
<b>DOMEKA 27</b>
<b>EGUNEZ   Mendiñueta</b> (Urkizu, 6)
<b>ASTELEHENA 28</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 29</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>EGUAZTENA 30</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>EGUENA 1</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>BARIXAKUA 2</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>GAUEZ BETI, 2022an,</b>
<b>Mendiñueta</b> (Urkizu, 6)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Pedro Zabala Uriarte.** 92 urte. 2022-11-16.
- **Jose Macarro Castillo.** 83 urte. 2022-11-17.
- **Asuncion Anton Carrera.** 98 urte. 2022-11-18.
- **Javier Usobiaga Barrenetxea.** 75 urte. 2022-11-19.
- **Pedro Mari Lezea Txurrukaa.** 95 urte. 2022-11-19.
- **Vicente Alija Lopez.** 70 urte. 2022-11-20.
- **Jose Luis Mallagarai Manchovas.** 91 urte. 2022-11-20.
- **Maria Bajo Esteban.** 86 urte. 2022-11-22.

## Jaiotakoak

- **Suleiman Lara Roufani.** 2022-11-09.
- **Markel Airas Prieto.** 2022-11-12.
- **Ane Hernandez Trenado.** 2022-11-13.
- **Maren Irazabal Cid.** 2022-11-15.



# Betiko sanandresak ospatzeko gogo biziz



San Andres jaiak ospatzeko egitaraua aurreko asteburuan hasi zen, domekan Errebal Plazan egin zen San Andres Eskolarteko XVIII. Bakailao Txapelketarekin, eta astean zehar egitarauaren barruan antolatutako beste bi jarduerak egin dira: Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin, Udalarekin eta herriko tabernariekin elkarlanean Arrate Kultur Elkartearen eskutik egin den "San Andres Saria" Eibarko tabernarien arteko XVIII. Pintxo Lehiaketa; eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta atzo Coliseo antzokia hartu zuen San Andres XXVII. Bertso Jaialdia eta bertso-paper lehiaketako sariak banatzea.

**B**ihar, bestetik, Txistorraren Egunaren XVIII. edizioa hartuko du Untzagak, Eibarko Txirriindulari Elkartearen eskutik. Egun osoko jaiak izango da, goizeko 09:00etan hasi eta 21:00etan amaituko dena. Egun osoan zehar txistorra pintxoak saltzen egongo dira (txistorra kilometro bat zatitu eta pintxoetan eskainiko dute) eta, horrekin batera, musika emanaldiak eta kirol erakustaldiak ere eskainiko dituzte.

Goizeko 11:00etan zabalduko dute txotxa Amaiur Mayo errugbilaria, Arrate Eibar Eskubaloia eta K3 inprimategiak, Elgoibarko dultzaineroen laguntzarekin. Bazkaltzeko ordura arte arituko dira dultzaineroak Untzaga plaza eta inguruak alaitzen. Eta bazkalostean, arratsaldeko 18:30ean hasiko dira berriz ere pintxo eta edarien salmentarekin. Jaia agurtzeko, 21:00etan egingo dute egunean zehar saldutako rifaren zozketa.

Eta, horrez gain, 19:00etatik 21:00etara Ustekabe txarangakoak kalejiran ibiliko dira, kaleak girotzen eta, jarraian, Gorka Perez DJ-ak saioa eskainiko du Errebal Plazan, 19:00etatik 22:00etara, dohainik.

Domekan, berriz, XXVIII. San Andres Saria Bakailao Txapelketa egingo da Untzagan, 11:00etatik aurrera, 31 bikoteren parte-hartzearekin.

## **Elektrotxaranga eta erromeria bezpera girotzeko**

Bestalde, azaroaren 29an, San Andres bezperan, 19:30ean zabalduko da Jaixak Herrixak Herrixandakoren barra. Untzagako karpan. 20:30ean talde-argazkia egingo dute eta, jarraian, ElektroPottotte elektrotxaranga ibiliko da Untzaga inguruan kalejiran. Gauerako erromeria antolatu dute, Altza Porru! taldearekin, 22:30ean karpan.



**Nekazal azoka Untzaga eta Txaltxa Zelaiko karpetan**  
Eta San Andres egunerako programa, beti bezala, XLIII. San Andres Azokak zabalduko du, 09:30ean. Nekazal produktuekin parte hartzera etorriko diren 53 postuak Untzaga eta Txaltxa Zelaiko karpetan (jatorri-deitura duten produktuekin) egongo dira: 19 postutan ogia salduko dute; beste 14 postutan gazta (horietako hamabik jatorri-deitura duten produktuak eskainiko dituzte); beste hamarrek barazkiak; zazpik ezta; eta frutarekin, lorekin eta ontziraturako produktuekin postu bana egongo da.

Bestalde, abereak Calbeton kalean erakutsiko dituzte. Aritxuleta, Mandiola Gainekua, Zumaran, Arizmendiko Goikua, Orbe, Agarre-Azpi, Untzeta, Gisasola eta Mendigoitxi baserrietatik ekarritako animaliak ikusi ahal izango dira (behiak, ardiak, pottokak, poniak, zaldiak, ahuntzak, oiloak, antzarak, astoak eta idiak).

Gainera, 11:30etik aurrera Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du, eta 12:00etan Toribio Etxebarria kalean Binakako Aizkolari Txapelketa hasiko da. Ordu berean hasiko da bertsolari eta trikitilarien saioa, Untzagan, eta jarraian kalejiran ibiliko dira.

Ordu erdi geroago, 12:30ean, hasiko da Plazara Dantzara erromeria Untzagan, Kezka Dantza Taldearen eskutik eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin. Sanandresetarako antolatu diren lehiaketetako sariak banatzeko ekitaldia, bestalde, 13:00ean izango da, Untzagan. Eta, jaiari agur esan aurretik, Kezka dantza taldearen eskutik Plazara Dantzara bigarren saio bat egingo da Untzagan, 18:00etatik aurrera.



**Aurtengo azokan 53 postu egongo dira, nekazal produktuak saltzen. Jatorri-deiturako produktuak Txaltxa Zelaian eskainiko dituzte eta gainerakoak Untzagan**



Plazara Dantzara saio bikoitza egingo da San Andres egunean Kezka dantza taldearen eskutik. MALEN JAINAGA



## Matazak, elkarretaratzea eta manifestazioa Indarkeria Matxisten kontra

Gaur Indarkeria Matxisten Kontrako Eguna dela eta, goizetik hasi dira horren harira prestatutako ekitaldiak: iaz bezala, aurten ere “Indarkeria Matxisten Aurkako Matazak Ehuntzen” ekitaldia egin da Untzagan. Altzoa Eibarko emakumeen alargunen elkarteak, Emakumeen Mahaiaren laguntzarekin, ekainaren 11n ehundutako piezak jarri ditu Untzagan. Eguerdian, berriaz, elkarretaratzea egin da, Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak deituta, “Indarkeria Matxistaren

aurrean, Saretze Feminista” goiburuari jarraituta. Eta arratsaldeko 19:00etarako manifestazioa deitu dute Matraka eta Nalua talde feministek, Untzagan. Horrez gain, zapatuan Eibarren gertatu zen bortxaketa salatzeke, kalea moztu zuten eguaztenean. Bestalde, gaur azaroko azken barixakua izanda, presoen aldeko ekitaldia hartuko luke Untzagak; baina, horren ordez, indarkeria matxisten kontrako manifestazioarekin bat egingo dute.

## Begoña Etxenagusia Atutxa ikerlariak jaso du Mercedes Kareaga Beka

Mercedes Kareaga Beka Begoña Etxenagusia Atutxa (Iurreta, 1969) ikerlariari emateko proposamena ontzat eman zuen Ego Ibarra Batzordeak, aurreko astean egindako bilkuran. Epaimahaiaren berbetan, “Begoña Etxenagusiaren proiektuak oso ondo zehaztu du lanaren ikerketa-esparrua eta helburua; hots, Mercedes Kareagaren biografiaren idazketari genero-ikuspegia duen hurbilketa historiko baten bidez ekitea, eta haren bizitzan zehar ikertutako aldi historiko ezberdinak testuinguru egokian kokatzea”. 20 hilabeteko epea eman diote lana amaitzeko.



## 40 urte eta gero, taberna laga eta jubilatzeke ordua ailegatu zaie Txokokoei

Domu Santu egunean bete ziren lau hamarkada Aitor eta Mari Carmen Txoko tabernan hasi zirela: “Txokoko gure ibilera 1982ko azaroaren Iean hasi zen eta, 40 urte geroago, hemen jarraitzen dugu. Hala ere, erretiroa hartzeko sasoia ailegatu zaigu”. Baina, jubilatuta aurretik, horrenbeste urtetan bidelagun izan dituztenei eskerrak eman nahi dizkiete: “Urte guzti hauetan gurekin egin zireten be-

zero eta lagun guztiei gure eskerrik beroena adierazi nahi dizuegu, baita bidean geratu diren bezeroei ere. Egin dugun lanarekin gustora egotea, zaïnduta sentiaraziko genizuen itxaropenarekin agurtzen zaituztegu. Hori bai, barraren beste aldean elkar ikusten jarraituko dugu. Lerro hauen bitartez jaso gure maitasun eta esker ona. San Andres jai zoriontsuak opa dizkizuegu”.





## Bilatzen ez den bakardadeari buruz aritzeko doako tailerrak antolatu dituzte

Udalak, Adindu Gerontologia Zerbitzuen laguntzarekin, "La soledad no deseada: reflexiones sobre una realidad invisible" izeneko tailerra antolatu du, nahi edo bilatzen ez den bakardadeari buruzko sentsibilizazioa lantzeko. Tailerra teorikoa eta praktikoa izango da, eta gai hau sakonago ezagutu eta horri buruz hausnartu nahi duten adinekoei zuzenduta dago. Saioak jubilatuen etxeetan

egingo dira, honako egunetan: Beheko Tokin azaroaren 28an, 16:30etik 18:00etara; Ipuruako jubiletxean, abenduaren 12an eta 19an, 17:00etatik 18:30era; Untzagakoan, abenduaren 14an eta 16an, 11:00etatik 12:30era; eta Urkiko jubilatuetxean, abenduaren 14an eta 21ean, 18:00etatik 19:30era. Tailerrak doan dira eta alde zuzenetik izena eman behar da, joan nahi den jubiletxean.

## Herri-bazkarirako tiketak Untzagan salgai

Boteprontuan Euskeraz! dinamikak Euskeraren Egunerako antolatu duen herri-bazkarirako txartelak saltzen egongo dira gaur (20:00etatik 21:00etara) eta bihar (13:00etik 14:00etara) Untzagan. Txartelak 14/17 euro balio du.



## AUTUAN

### ZUHAITZAK LANDATZERA JOATEKO IRTEERA ANTOLATU DU EIBARKO BASO BIZIAK TALDEAK ABENDUKO LEHEN ZAPATURAKO

Eibarko Baso Biziak taldekoek zuhaitz-landaketa antolatu dute abenduaren 3rako. Ekintza horretan parte hartzeko aukera bi egongo dira. Batetik, oinez joango direnak 09:00etan irtengo dira Urkizutik. Eta bestetik, autoan joan nahi dutenek 10:00etan San Salbadorren egon behar dira. Handik landaketa egingo den gunera joango dira elkarrekin eta, lana amaituta, ermitara itzuliko dira, 12:30ak inguruan hamaiketako egiteko. Parte hartzeko izena eman behar da azaroaren 30a baino lehen, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidean (zenbat heldu eta adin txikiko izango diren eta oinez edo autoz igoko diren zehaztu behar da).



Baimendutako harategia  
Euskal Okela  
Carnicería autorizada

Bidebarrieta, 20  
Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar

**ETXERA ERAMATEN DIZUGU**

943 20 16 69

@Oberenaharategia





## Kintoen ospakizunek aurten etenik ez dute

Goiko talde argazkian, 1951. urtean jaiotakoak dauzkazue. Erdian, 1952an jaiotakoak (ezkerreko aldean) eta, aldamenean, 1981ean jaiotakoak. Eta beheko argazkikoak, berriz, 1947an jaiotakoak dira. Azken hauek, gainera, asteburura itxaroten egon barik, aurreko asteko eguenean ospatu zuten beraien kinto-eguna.



## ETXEBIZITZEN ENERGIA-AUTODIAGNOSTIKOA

# “Norberak bere etxebizitzaren autodiagnostikoa egin ahal izateko irizpideak emango ditugu”

Debegesa etxebizitzen energia-autodiagnostikorako egiaztapen-zerrenda lantzen dihardu.

### Zergatik jarri duzue martxan ekimen hau?

Energiaren prezioak demaseko gorakada izan du eta Debegesan ditugun Birgaitze- eta Energia-zerbitzuetan kontsuluten gorakada egon dela ikusi dugu. Jendea arduratuta dago eta bi gauza jakin nahi dituzte batez ere: batetik, nola aurreztu dezaketen; eta bestetik, energia era berriztagarriago batean nola ekoiztu dezaketen. Beraz, etxe guztietara ezin garenez iritsi irtenbide pertsonalizatuak ematera, pentsatu genuen interesgarria izan daitekeela gida bat sortzea, norberak irizpide batzuk eduki ditzan, gero bere kabuz etxebizitzaren hasierako diagnostikoa egiteko.

### Gida sortzeko orduan, zein informazio eskatzen diezue parte-hartzaileei?

Gida tutorizazio-prozesu baten bitartez sortzen dugu. Izan ere, esperientzia errealean bitartez sortzen da. Horretarako, prozesu honetan parte hartzeko prest dauden etxebizitzak behar ditugu. Izena ematen dutenean, enpresa bat euren etxebizitzetara joango da bisita egitera eta bizilagunek informazio bat eduki beharko dute prest. Hala nola, azken hilabeteetako faktura energetikoak eta kontsumo ohiturak. Bestetik, energia kontsumo iturri diren elementuak zeintzuk diren begiratuko dute (argiteria, etxetresna elektrikoak...) eta elementu horiek nola erabiltzen diren informatzea garrantzitsua da gero planteatuko diren ekintzak benetan eragingarriak izan daitezten.

### Gida horrek zein eduki izango ditu herritarrentzat?

Tutorizatzen ditugun etxebizitzek energiaren diagnostikoa izango dute. Bertan, etxebizitza



horretara egokituta egongo diren ohituren, inbertsioen, energia berriztagarrien eta dirulaguntzen inguruko gomendioak eta ekintza-plan bat jasoko dira.

### Zertarako balioko du horrek guztiak?

Lehentasunak markatzeko, eragin elementuak non ditugun jakiteko eta, gutxi gorabehera, arlo energetikoan ekintzarik garrantzitsuenak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko. Gero, tutorizazio prozesuarekin ikasiko dugu informazio eraginkorra modu errazean nola eman daitezkeen eta, horrela, irizpide batzuk emanez hori jakinarazi nahi dugu, bakoitzak bere autodiagnostikoa egiteko baliabideak izan ditzan.

### Etxebizitza gehiagok izena eman dezakete oraindik ekimen horretan?

Bai. Interesa dutenek agenda2030@debegesa.eus helbidera idatzi edo 943 82 01 10 telefonora deitu dezakete.



## Eibarren ere hitzen bidez ekiten

Euskaraldian bete-betean sartuta gaude eta Eibarren 2.300 lagun (1.800 Ahobizi eta 500 Belarriprest) eta 100 erakunde inguru ari dira abenduaren 2an amaituko den ekimenean parte hartzen. Antolatzaileen berbetan, "jende askok azken momentuan eman du izena eta oraindik ere parte hartzeko aukera zabalik dago". Gogoratu zuzenean **euskaraldia.eus** webgunean egin daitekeela edota, online egiteko arazorik izanez gero, AEK-n, Udal Euskaltegian, ...eta kitto!-ren bulegoan (Urkizu 11) edo AKEBAIren bulegoan (Portalea). Txapak ere bertan jaso daitezke,

Argazkietan ekimenarekin bat egin duten hainbat elkarte edo erakunde: Urkizu eskola, ...eta kitto! Euskara Elkarte, UEU, La Salle, Usartza Txistulari Taldea eta Elbarko Udala.





## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

#### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

#### M<sup>a</sup> MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 esk.  
Tel. 943 20 17 03  
Fax. 943 70 20 49  
m\_ari\_sanz@hotmail.com

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

#### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



# Gastronomia eta musika asteburua biribiltzeko



Jaiaren aurretik hasi gara sanandresetarako beroketak egiten: asteburua musikarekin hasi genuen, Eibarko Musika Bandak estreinakoz barixaku gauerdian egindako Santa Zezilia serenatarekin. Zapatuan Sareren Berakatz Zopa txapelketa egin zen; eta domekan ikasleak aritu ziren sukaldean, San Andres Eskolarteko Bakailao Txapelketan. Martitzenean ospatu zuten Santa Zezilia Musika Eskolakoek, Ustekaberekin, eta txistulariek kalejira eta afaria egin zituzten.



Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



Azken bi urteotako murrizketak eta gero, herriko musikariak Santa Zezilia ospatzeko irrikitan zeuden eta, eguraldia kontra izan arren, kalera irten dira berdin berdin.



**Azaroko asteburuetan ekitaldi gastronomiko eta musika emanaldi ugari izaten dira urtero, San Andres egunaren aurretik girotzen joateko**

# “Bertsoak duen armarik garrantzitsuena norberak duen imajinazioa da”

HANKAMOTXAK • Bertso-eskola



Hilabete baino gutxiago falta da Bertsolaritza Txapelketa Nagusiaren finalerako eta begiak Nafarroa Arenako zita handira begira jarri dira dagoeneko. Bitartean, Eibarren San Andres bertso-jaialdia egin zen atzo eta bertso-paper lehiaketaren sariak banatu ziren. Han izan zen gai-jartzaile Jon Mikel Mujika, Hankamotxak bertso-eskolako kidea.

Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



**H**ain zuzen ere Jon Mikelekin, Maialen Bergararekin, Iruñe Basagoitirekin eta Igor Galarza irakaslearekin elkartu gara Hankamotxak bertso-eskolaren inguruan jarduteko. Topalekuan bildu gara, bertan egiten baitituzte saioak martitzen arratsaldero. Han egongo dira zuen zain, bertsoarako lagun berrien bila baitaibiltza eta beso-zabalik hartuko zaituztetelako.

## Nolako saioak egiten dituzue bertso-eskolan?

IGOR: Bertsolaritza Txapelketa Nagusian murgilduta gaudenez, lehenengo minutuetan asteburuko saioak komentatzen ditugu, bakoitzak bere iritzia emateko eta abar. Gero, berotzeko, puntuka hasten gara bertso-tan. Ondoren, gaiak jartzen dizkiet hirunaka, binaka edo bakarka, eta horrela ibiltzen gara ordu eta erdiko saioa bete arte.

## Zuetaz gain, jende gehiago etortzen da?

JON MIKEL: Aurten, beste lagun bat gehiago etortzen da, Jon Martinez, baina aurreko urteetan jende gehiago izan gara. Pare bat lagun kanpora joan dira

ikasketak egitera. Horregatik, jendea bertso-eskolara etorri dadin animatu nahi dugu.

## Gonbidatu dezagun jendea. Zergatik etorri beharko lirateke bertso-eskolara?

JON MIKEL: Uste dut jendeak pentsatzen duela bertso-eskola bakarrik ariketa literario batean trebatzeko zerbait bakarrik dela, baina askoz gehiago da. Azkenean, bizitzan behar ditugun gaitasun asko hobetzeko erreminta asko ematen dizkigu: jende aurrean aritzeko, diskurtso bat eraikitzeko eta iritzi ezberdinak entzuteko gaitasunak, besteak beste. Eztabaida eta barre asko ere egiten dugu.

MAIALEN: Lagunekin elkartzeko beste toki bat da eta deskonektatzeko eta burua trebatzeko aukera ematen digu. Ez da gauza formal bat. Oso gustora egoten gara eta beste indar batekin irteten gara hemendik.

## Bertsotan egiteko berezko gaitasuna eduki behar da ala zerotik ikasi daiteke?

IGOR: Zerotik ikasi daiteke. Bertsoak duen armarik garrantzitsuena norberak duen imajinazioa da. Hortik aurrera beti entrenatu daiteke, errimak eta metrikak





ikasi... Denok dugu zeozer esateko eta bakoitzaren imajinazioa libre da. Beste guztia ikasi daiteke.

**Eszenatoki ezberdinetan egin daiteke bertsotan (txapelketetan, afalostean, lagun artean...). Gauza jakin batetan aritzeko ikasten duzue hemen?**

IRUNE: Orokorrean ez dugu toki jakin batean aritzeko ikasten, baina normalean egiten ditugun ariketek badute txapelketa kutsua, neurriak zehazten ditugulako aurretik. Afalostean eta horrelakoetan gabiltzanean libre jarduten dugu.

IGOR: Bertsoak duen gauzarik zailena libre jardutea da. Gaia jartzen dizutenean A edo B esan dezakezu,

baina gaiak norberak atera behar duenean beste gauza bat da eta hori ere bada bertsoen magia. Ikasteko eta irakasteko, ostera, txapelketa formatua erabiltzea da onena.

**Txapelketetan ibilitakoak zarete?**

JON MIKEL: Bere garaian plazaren bat egindakoa naiz, baina ez dut neure burua jendartean ibili banintz bezala ikusten. Bertso-eskolara etortzen den jendea helburu ezberdinekin dator. Batzuk euren burua hobetu eta txapelketetarako prestatu nahi dute, ni denborapasan etortzen naiz, etorri daitezke ere bertsotan jakin ez eta zerbait ikasi nahi dutenak gai-jartzaile izateko...



**ZURICH**

**Lejardi S.L. Aseguru Agentzia**

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar



**MAIALEN:** Ni ez naiz plazan ibili eta denborapasa moduan hartzen dut bertso-eskola. Hauek esperientzia gehiago dute (dio Igorri eta Iruneri begira).

**IGOR:** Irune eta biok gehiago ibili gara plazan, baina irakasle naizen aldetik, ez dut jartzen helburu bezala plazara joatea edo zirkuituaren partaide izatea. Bakoi-tzak ikusiko du noraino iritsi nahi duen.

**Hilabete falta da Txapelketa Nagusiko finalerako. Nola ikusten duzue?**

**IGOR:** Uste dut laurok ikusten dugula faborito nagusia: Maialen Lujanbio.

**MAIALEN:** Esperantza dut inoiz gertatu den zer bait gertatzea: Maialenez gain emakume gehiago sartzea finalean. Ilusio berezia egiten dit.

**IRUNE:** Gainera, finalean sartzeaz gain, garrantzitsua da emakume horiek orain arte nolako lana egiten ari

diren ikustea: nolako bertso-maila eskaini duten, nolako zeresana eman duten... Alde horretatik oso pozik nago, nahiz eta epaileren batekin oso ados ez egon (barreak). Plazan azken hamar urteotan ikusi den joera txapelketetara heldu da.

**IGOR:** Txapelketa honetan profil ezberdinetako bertsolariak daude eta horrek lagundu dezake jendeak eurekiko atxikimendu gehiago izan dezan. Horrelako txapelketa batek bertsozaletasun uholdea sortu dezake, espero duguna Eibarren ere fruituak ematea.

**Zuen inguruan bertsozaletasuna handitzen doala ikusten duzue?**

**JON MIKEL:** Zaila da. Eibar batean bertsozale berriak topatzea ez da erraza izaten. Bertso-saiotara joatea besterik ez dago, aurpegi berdinak ikusten dituzulako. Poztuko nintzateke gazteak bertsozara hurbiltzearekin, baina zaila ikusten dut. Ea Txapelketa Nagusiak eta horrelakoek laguntzen duten.

**IRUNE:** Ermuan, San Martin jaien inguruan, saio potentea egiten dugu urtero eta azken urteotan gazte euskaltzale asko joaten da, baina ez nintzateke ausartuko bertsozale deitzera horregatik. Agian, konpromiso politikoagatik da gehiago.

**Final nagusian aretoa bete egiten da. Zaletasun hori egunerokoan islatzen da?**

**IGOR:** Finala oasi bat izaten da. Ez da gauza bera final nagusian aretoa betetzea edo astero bertso-saiotara jendea joatea. Era berean, ez da gauza bera Gernikan saioa egitea edo Angelun, edo bata Eibarren eta bestea Elgoibarren egitea. Toki guztietan ezberdin bizi da.

**IRUNE:** Ni positiboa izaten saiatzen naiz. Noski, finalera doazen 15.000 lagunak ez dira bertsozaleak izango; baina, 15.000 badaude, gero asko izango dira asteburuetan plazaz plaza ibiliko direnak.

**Herriko eskolekin lan egiten duzue umeak txikitik bertsozale izateko?**

**MAIALEN:** Lehen gaztetxoek bertso-eskola genuen Eibarren, baina desagertu egin zen eta ez dugu lortu berriz martxan jartzea. Bestetik, eskoletan motibazio saioak egin izan ditugu, baina ez dugu lortzen Eibarko umeak guregana gerturatzea eta hor dugun erronka da.



**686204738      639046428**  
**astelehen eta ostegunetan**

**Sosolako  
gazta eta ogia  
gaur ona eta  
bihar hobia!**

**Itxesi belardendan**  
Bidebarrieta, 6

**Centro Dietetico-n**  
Julian Etxeberria, 8

**Tarte kafetegian**  
Legarre, 19

**Aza ta Porrua  
kontsumo elkarteetan**  
Juan Gisasola, 10

**Ibarkurutze frutadendan**

...ETA URTARRILETIK AURRERA  
**ostegun goizetan**  
**SALMENTA**  
**ZUZENA**  
**Errebal Plazan**

**Nahaste kafetegian**  
Romualdo Galdos, 14

**Amañako harategian**  
Tiburzio Anitua, 7

**Ahsanen dendan**  
Isasi, La Salle parean

...ETA GAZTA

**Isasiko okindegian**  
Ego Gain, 2



**Salmenta  
zuzena  
etxetik.**

Urkizu, 18  
943120194  
**MUGIKA**  
Harategia - Urdaitegia  
Carniceria - Charcuteria

Baserriko Haragia

GOIKO-LUZ

Ospatu, bizi, gozatu SANANDRESAK!!!  
**GOIKO-LUZ**  
Otaola Hiribidea, 13  
www.goikoluzluminacion.com  
943-200863

**GABONETAKO  
BIGARREN ESKUKO  
AZOKA**  
**abenduak 17**  
**EIBAR**

**ERREBAL PLAZA, 10:00etatik 14:00etara**

Erreserbatu mahai bat, behar ez dituzun gauzak saltzeko, haien bizi-iraupena luzatuko duzu horrela. Ekarak elkarre, ikasteko eta herritar gazteek har dezakete parte. Bi aukera:

1. **Erreserbatu salmenta-postu bat** (mahai bat) **eta zerorrek saldu erabilikatu zeure gauzak.**
2. **Gordailu-salmentan utzi zure objektuak** (10 gehienez) **eta antolakuntza-taldekoak arduratuko dira salmentaz.** Ezin dira eraman: arropa eta osagaiak, bolumen handiko altzariak...

Egunean bertan eraman gauzak 9:00etatik 10:00etara.  
Oharra: aukera batean zein bestean parte hartzeko, nahitaezkoa da auzer eureserba egilea eta adin nagusikoa izatea. Hitzordua emango da.

Izena emateko epea: **abenduaren 1etik 13ra** (biak barne)

Izen-emateak eta informazio gehiago:  
www.merkabi.eus/elbar tel. 943 670 249



**TAILERRA**

Egin Gabonetako apaingarriak material birziklatuekin

**11:30 - 14:00, Errebal Plaza. DOAN**

Bi tailer: 3-6 urteko haurrentzat (heldu batez lagunduta) eta 7 urteik aurrerakoentzat.

Iraupena 25 min. Bost tranda aukeran, 11:30etik 13:30era. Plaza mugatuak.

Hartu zure tranda egun berean!

**abenduaren 17an**

**Egoera onean  
dauden erabilikatu  
objektuak berriz  
ere erabiliz,  
hiri-hondakin  
gutxiago sortzea  
lortzen dugu.**

# “Askok nahi dute egoera horretatik irten, baina hori lortzeko bost egun ez da nahikoa”

NAGORE CID ALZIBAR • Neguko dispositiboko koordinatzailea



Aurten berandu ailegatu zaizkigu euria eta hotza. Eta gogo gutxirekin bada ere, honezkero bete-betean sartu gara neguan. Gutariko gehienontzat deserosoa den eguraldi hau, baina, arazo oso larria da etxe barik, derrigorrez kalean bizi behar dutenentzat. Aurreko urteaz geroztik, baina, egoera latz hori apur bat leuntzeko aukera ematen die Debabarrenerako zerbitzu modura sortu zen Eibarko neguko dispositiboak.

**B**izitegi-egoera larrian dauden pertsonentzako neguko dispositiboa dago martxan Karmen kalean, Karmeldarren elizaren lokaletan. Etxerik gabeko pertsonentzako 14 plaza eskaintzen dituzte bertan eta, egoera klimatologiko txarretan, Debabarreneko edozein udalerrik eta/edo dispositiboko teknikariek aktibatu ahal izango dituzte plazak. Iaz ipini zen martxan aterpetxea, Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako udalen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren bitartez. Eibarko Udalak lehiaketa deitu eta gero, Arrats elkarteko hezitzaileak arduratzen dira zerbitzuaren kudeaketarekin.

## Nola funtzionatzen du zerbitzuak?

Sarrerak ezberdinak izaten dira. Batetik, hona datozenak beste zerbitzu batzuetatik deribatutakoak izan daitezke. Hau da, Gizarte Zerbitzuek, edo beste elkarteren batek informazioa eman eta hau hemen dagoela jakinda etortzea. Edo beste aterpetxeren batek bidaltzea ere gerta daiteke, gida bat existitzen da eta gu ere bertan sartuta gaude. Eta beste hainbat, berriz, Eibar inguruan kokatuta daude eta horiei zuzenean esaten zaie hau irekiko dela eta horrela bertaraten dira. Hona sartzeko bi aukera daude. Alde batetik udaltzainen bulegotik pasa daitezke, 24 orduetan zabalik dago eta. Bertan plaza erreserbatzeko aukera daukate 19:30ak arte. Plaza erreserbatu dutela adie-

razten duen txartela ematen zaie eta udaltzainek guri abisatzen digute. Eta beste aukera da zuzenean hona bertaratzea: 20:00etatik 20:30era harrera egiten dugu, gerturatzen denari informazioa ematen zaio eta, nahi bada, orduan aurrera.

## Nolako jendea etortzen zaizue?

Urriaren 15ean ireki zenetik gaur arte (azaroaren 22ra arte) 67 lagun etorri dira guztira. Jatorriari begiratu gero, Gipuzkoako lurralde historikotik bi pertsona etorri dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 12, Espainiako beste erkidegoren batekoak diren 22, Europako kide den herrialderen batetik atzerritar bat etorri zaigu, zehazki Ukrainatik, eta Europatik kanpoko beste atzerritarrak 30 izan dira. Adinari begira, gehienbat 46-65 urte bitartekoak izan dira. Generoari begira, gehiengo gizonak dira, hori oso argi ikusten da datuetan (gizonak %99 dira). Bestalde, errolda oso garrantzitsua da pertsona hauen integrazio prozesurako, eta etortzen direnen erdiak ez dauka inongo erroldarik. Eta beste erdiak ipintzen du, nahiz eta argi dagoen errolda fiktizioa dela.

## Eta badago erabiltzaile-profilen bat? Ala denetarik dago?

Nondik datozen eta nora doazen oso garrantzitsua dela pentsatzen dugu. Hau da, hemen eman diegun infor-

Elkarrizketaren bideoa  
gure YouTube kanalean:



mazioarekin beste aterpetxeren batera doan jakitea, edo beste zerbitzuren baten sartu den. Oraingoan, baina, hori jakiteko datu nahikorik ez daukagu. Gehienak kaletik edo beste aterpetxe batetik etortzen dira, eta berriz kalera edo beste aterpetxe batzuetara joaten da.

#### **Batezbeste zenbat denbora egiten dute hemen, zuekin?**

Hilabetearen gehienez bost egun egon daitezke. Hortik kanpora, Euskalmetek alerta egunak izendatzen dituen horietan guk ere alerta aktibatzen dugu eta egun horiek ez dira kontatzen. Beraz, oso eguraldi txarra dagoenean jendeak denbora gehiago pasatu dezake. Eta, behin alerta hori amaituta, guk abisatu egiten diegu eta berriz bost eguneko muga hori kontatzen hasten gara.

#### **Zuengana jotzen duen jendeak nola bizi du gertatzen ari zaiona? Nola sentitzen dira?**

Kasu bakoitza mundu bat da, horregatik da hain garrantzitsua pertsona hauekin egiten den esku-hartzea pertsona horren baldintza eta beharretara egokitutakoa izatea. Ez nintzateke ausartuko eskala baten gehiengo zeintzuk diren esatera. Jende askok egoera horretatik irten nahi du, baina ez dauka modurik, azkenean bost egunekin ez da nahikoa, oso zaila egiten zaie aurrera egitea.

#### **Egunero kalean ikusten ditugun arren, askotan begiratu ere ez diegu egiten, existituko ez balira bezala...**

Gizartean dagoen estigma kalean bizi den jendearekiko oso handia da eta denok eman beharko genioke buelta bat. Lanean ikasi dudana gauzetako bat da edozeini gertatu ahal zaiola horrelako egoera batean egoitea. Kaletik goazenean beste jende bat nola bizi den



## **“Azaroaren 28tik abenduaren 2ra jendeak eman nahi digun neguko arropak jasoko ditugu aterpetxean bertan, goizeko 10:00etatik 12:00etara”**

kontziente izan beharko ginateke, eta baliabide edo laguntzak eskaini.

#### **Arropategi bat jarri nahi duzue martxan, ezta?**

Bai, asko arropa eta zapata gabe etortzen dira. Horregatik, Eibarko herriari dei egin nahi diogu, nahi duenak zapatak, mantak eta, batez ere, neguko arropak ematera etor dadin. Aukera emango dugu azaroaren 28tik abenduaren 2ra, hona etorrita goizeko 10:00etatik 12:00etara. Eta eskatu nahi dugu norberak nahiko ez lukeen arroparik ez emateko, arropa duina, erabili daitekeena izatea, hori asko eskertzen dute beraiek ere.

**BOLINTXO**  
**OKINDEGIA**  
**GOZOTEGIA**  
Eguneroko ogia  
☎ 943 20 40 66 (Errebal)

**BASERRIKO PRODUKTUAK**  
**IBARKURUTZE**  
frutadenda  
WHATSAPP BIDEZ ESKAERAK  
680 38 20 91 / 664 71 86 99

## Gaur amaitu da “Sare sozialetan ere Euskara” kanpaina

Hiru asteren ondoren gaur amaitu da herriko establezimenduek sare sozialetan euskara gehiago erabiltzeko kanpaina. Lana errazte alde-dera dendari-erakunde baliagarria izan zaien materiala jaso dute, ohiko esaldi edo esamoldeen hiztegi laburra, esate baterako. ...eta kitto! Euskara Elkartetik diotenez, “azkenaldian sare sozialetan berebiziko garrantzia hartu dute, baina sarri, aurrez aurrekoan gertatzen zaigun bezala, euskararen presentzia ez da izan zitekeen bezain handia. Parte-hartzea oso erraza izan da, establezimenduetako Instagram edo Facebookeko kontuan egindako argitalpenak edo irudiari lotutako testuak euskaraz idatzi besterik ez dute egin behar izan, eta ondorengo traolak erabili dituzte: #eibarrenbadakagu eta #erosieibarren.eus”.

Gure herria merkataritza gune bilakatu da azkeneko urteotan, in-

dustria hiri izatetik zerbitzu hiria izatera pasatu da. Eibartarrok ez ezik inguruko herrietako biztanleak ere gurera gerturatzeko dira erosketak egitera. “Denok estimatzen dugu bertako dendari-erakunde gertutasuna produktuen kalitatea eta bezeroei egokitutako aholkuak eskaintzea eta, nola ez, euskaraz jarduteko aukera izatea”, diote ...eta kitto!-tik.

2021az gozotik ...eta kitto! Euskara Elkartea, Eibarko Udaleko Euskara eta Ekonomia eta Garapena Sailak, EMGI, Gipuzkoako Merkataritza eta Dendari Elkartea elkarlanean ari dira Eibarko merkataritza eta euskara sustatzeko.

Bide batez, “Euskeraz Primeran! programarekin bat egin duten establezimenduek euskarazko doako itzulpen eta zuzenketa zerbitzua erabili dezakete, 943200918 telefonora deituta edo elkarte@etakitto.eus helbidera idatzita”.



Les gusta a Iruahotela, estetica\_aita y 23 personas más  
Lehialga zapateria (Badurdi) utackena heitlu dela!



18 Me gusta  
Barrundi Azken egunotako balpeen ostan aurtengoz Dalak amaitu dirala esan geinika... más

## Berbalagunak Mutrikuko Arrietakua jauregian egon dira

Joan den zapatuan, eta eguraldi ilun eta desatseginari aurre eginez, Mutrikura joan zen Berbetan programako berbalagun-taldetxo bat. Bertan, Mutrikun gordetzen den ondare historiko garrantzitsuenetarikoa bat ikusteko aukera izan zuten: Arrietakua jauregia. Ordu eta erdiko bisita gidatua euskal kostaldearen itsas historian murgildu ziren berbalagunak, XVII.



mendeko jauregi zoragarria berrera. Besteak beste, Antonio de Gaztañeta eta Kosme Damian Txurruka itsasgizonak bizi izan ziren

jauregian; gaurdaino bizi izan da bertan familia eta bere horretan eutsi zaio, Mutrikuko hirigune historikoan.



# Etxeak zure esku

## Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore horretako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



**T. Etxebarria** Ref. 2216

3 logela. Guztiz berriak.  
Igoailua 0 kotara.  
**205.000€**



**Urtzaile** Ref. 2212

12 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin.  
Kanpora begira. Altzarekin.  
**93.000€**



**B. Sarasketa** Ref. 2253

3 logela. Oso argitsua. Igoailua  
0 kotara. Kalefakzioarekin.  
**149.500€**



**Urki** Ref. 2160

3 logela. 2 balkoi. Kalefakzioa  
eta igogailua. Garajea aukeran.  
**160.000€**



**Bidebarrieta** Ref. 2241

3 logela, 2 koman. Terrazarekin.  
Igoailua 0 kotara.  
**315.000€**



**Amaña** Ref. 2247

2 logela. Balkoia.  
Gas naturala eta igogailua.  
**140.000€**



**Bista Eder** Ref. 2211

3 logela. Balkoia. Igoailuarekin.  
Guztiz berritzeko.  
**125.000€**



**Ifar-Kale** Ref. 2214

2 logela. Balkoia. Igoailuarekin.  
Bizitzera sartzeko moduan.  
**189.000€**



Torbio Etxebarria, 1 943 20 03 58  
fincas@euki.com www.euki.com

**EUKi**  
zerbitzu inmobiliarioak

API 323



- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- **Galdetu zure etxebizitzaren Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**



### IPURUAKO DORREA

94 m<sup>2</sup>. Garaje eta trasteroarekin. Pisu altua, hegoaldera orientatuta.

D ETIKETA ENERGETIKOA. INKORPZIOA TRAMITATZEN



### KARMEN

84 m<sup>2</sup>. 3 logela eta 2 komun. Estrenatzeko. Aukera bikaina.

E ETIKETA ENERGETIKOA. INKORPZIOA TRAMITATZEN



### LEGARRE GAIN

2 logela. Guztiz berrituta. Trasteroarekin.

E ETIKETA ENERGETIKOA. INKORPZIOA TRAMITATZEN



### SAN KRISTOBAL

2 logela. Kanpora begira eta eguzkitsua. Guztiz berrituta.

E ETIKETA ENERGETIKOA. INKORPZIOA TRAMITATZEN



### BLAS ETXEBERRIA

220 m<sup>2</sup>. Guztiz berrituta, luxuzko amaierekin. Trasteroarekin.

E ETIKETA ENERGETIKOA. INKORPZIOA TRAMITATZEN



### IFAR-KALE

115 m<sup>2</sup>. 2 ganbarekin. Berritzeko. Aukera bikaina.

F OES/CAPV/2019/00167508  
ETIKETA ENERGETIKOA



### URKIZUKO DORREAK

4 logela eta 2 komun. Pisu altua. Egoera onean.

E OES/CAPV/2020/00179519  
ETIKETA ENERGETIKOA



### SAN JUAN

2 logela. Pisu altu eta eguzkitsua. Hesi arkitektonikorik gabe.

F ETIKETA ENERGETIKOA. INKORPZIOA TRAMITATZEN

**GARAJE, ETXEBITZA**  
**eta LOKAL KOMERTZIALEN**  
**Salmenta eta alokairua**

Eskatu informazioa konpromisorik gabe



Etxebizitzak eta lokalak saldu eta/edo alokatzeko, nahitaezkoa da higiezinaren etiketa energetikoa lortzea. Gure bulegoetatik pasa eta informazioa emango dizugu.





**Barrena** 120.000 €  
Sukaldea balkoiarekin.  
3 logela. Igogailua 0 kotan.



**Bidebarrieta** Kontsultatu  
3 logela eta 2 komun.  
Terraza handia.  
Igogailua 0 kotan.



**Bidebarrieta** Kontsultatu  
Pisu altua. 3 logela  
eta 2 komun, Ganbara.  
Garaje plaza trasteroarekin.



**Errekatxu** 118.000 €  
2 logela. Sabai altuak.  
Gutziz berriztuta.



**Iparragirre** 75.000 €  
3 logela. Oso argitsua.



**Jardiñeta** 95.000 €  
3 logela eta 2 balkoi.  
Oso argitsua. Bista ederrak.



**Mekola** Kontsultatu  
Eraikin berria. 2 logela.  
32 m<sup>2</sup>ko terraza..



**Miguel de Aginaga** 115.000 €  
3 logela. Igogailuarekin.



**Muzategi** Kontsultatu  
Apartamentua. Paregabea.



**Romualdo Galdos** Kontsultatu  
3 logela. Igogailuarekin.  
Ganbara.



**Sansaburu** 125.000 €  
3 logela. Igogailuarekin.  
Bizitzera sartzeko moduan.



**Santa Ines** 105.000 €  
3 logela, sukalde-jangela  
eta komuna. Oso argitsua.  
Gutziz kanpora begira.



**Toribio Etxebarria** Kontsultatu  
Eraikin ia berria.  
3 logela eta 2 komun.



**Urki** 118.000 €  
2 logela. Igogailua 0 kotan.  
Bizitzera sartzeko moduan.



**Urki** 82.000 €  
Berritzeko. Balkoi zabala.  
Igogailuarekin.



**Ziriako Agirre** 110.000 €  
3 logela. Balkoiarekin.  
Igogailua ezartzeko onartuta.



# Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

HIGIEZINAK  
**ARREGI**  
INMOBILIARIA  
Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333    Mobilak. 656 766 344  
www.inmoarregi.com

**IBAIONDO**

INMOBILIARIA ETA  
HOME STAGING ZERBITZUAK

T. 943 20 12 13

**KOTA**  
INMOBILIARIA +  
ARQUITECTURA

info@kotainmo.com  
943 20 15 80 Bidebarrieta, 1

**KOTA**  
INMOBILIARIA +  
ARQUITECTURA



**Saratsuegi** Ref. 219

Duplexa. 2 logela, egongela-sukaldea-jangela, 2 komun. 2 plaza garaje. **Kontsultatu**



**Ifar-Kale** Ref. 217

Trasteroak. Estrenatzeko, erdi aldean. 5 eta 12 m<sup>2</sup>-ren artsan. **5.500€-tik aurrera**



**Armagin** Ref. 207

Berritua. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun. Trasteroarekin. **138.000€**



**J. Etxeberria** Ref. 177

110 m, berritzeko. Trasteroa. Igoailua 0 kotan. **Kontsultatu**



**T. Anitua**

Egutxitsa, balkoiarekin. 2 logela, egongela, sukaldea, komun. Trasteroarekin. **110.000€**



**Urkizu / dorreak** Ref. 126

Pisu altua, terrazarekin. 3 logela, egongela-jangela, sukaldetendeferoa, 2 komun. **160.000€**




**Errebal** Ref. 182

Erdi aldean. 107 m<sup>2</sup>. 2 terraza. **Kontsultatu**



**Ipurua / dorreak** Ref. 203

Pisu altua, terrazarekin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Garajea. Trasteroa. **Kontsultatu**



## Euskeraz Primeran! euskal musika zerrenda eguneratua

Sanjuanetan bezala sanandresetarako ere Euskeraz Primeran! Spotify zerrenda prestatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, hala nahi duten taberneke zein herri-tarrek lau ordu luzez euskal musika jarri eta entzuteko aukera izan dezaten. Dantzatu mingaina euskaraz!



## Estanpazio dotoreak egin dituzte Illunabarrian saioan

Joan den martitzenean amaitu zen zigiluak eta estanpazioak egiten ikasteko ikastaroa. Aurreko astean zigiluak zizelkatu zituzten eta aste honetako saioan zigilu horiekin estanpazio ezberdinak egin dituzte oihalean. Boltsa bana ederrarekin, pozarren amaitu zuten saioa parte-hartzaileek.

## Tor magoaren ikuskizuna abenduan



Abenduaren 6an Tor magoaren bisita jasoko dugu berriro Eibarren ...eta kitto! Euskara Elkartearen esku-tik. Eguediko 12:00etatik aurrera Coliseoko antzoki txikietako batean eskainiko du ikuskizuna. Sarrera doan izango da, baina gonbidapena beharko da. ...eta kitto! Euskara Elkarteak jaso ahalko dira astelehene-tik aurrera (azaroak 28). Umeek helduekin joan beharko dute eta asko jota heldu bakoitzeko bi ume sartuko dira.



## Uxue Apaolaza Harixa Emoten saioan


Harixa Emoten euskarazko irakurketa taldeak joan den martitzenean egin zuen ikasturteko bigarren saioan Uxue Apaolaza idazle hernaniarra izan zen "Bihurguneko nasa" liburuarekin. Lan horrekin, gainera, Apaolazak 2022ko Euskarazko Literatura Euskadi Saria irabazi berri du.

## 17 taberna Gilda Lehiaketan

Abenduaren 13, 14 eta 15ean egingo den Gilda Lehiaketara 17 taberna aurkeztu dira. Berritasun moduan, bi beharrean hiru sari izango dira: epaimahaiak bi emango ditu, gilda tradizionalari eta berritzaileena-ri, sari bakoitza 150€-koa; eta herritarrek ere gehien gustatu zaien gilda sarituko dute, hori ere 150€-rekin. Botoa ematen duten herritarren artean bi lagunentzat asteburuko egonaldia zozketatuko da.

# Herriko musikarien sormen oparoa

Eibarko musikagintzak sasoi oparoa bizi du. Asteburu musikala atzean laga ondoren Santa Zezilia eguna ospatu dugun aste honetan, sortzaile eibartarrek kaleratu berri duten lanak argitara eman nahi izan ditugu, zorioneko baikara euskaraz herritik sortutako abesti eta doinu hauen aurrean. Euren lanak zuzenean entzuteko izango ditugu laster eta, bestela ere, Durangoko Azokan izango dira gehienak.



**G**aur bertan Bixente Martinezek zuzenean joko du Coliseoan eta, gauzak ondo, beste musikariak ere etorriko dira. Beraz, itxaron besterik ez dugu egin beharko. Bitartean, euren diskoak digitalean edo fisikoan erosi ditzakegu.

Eibar herri musikazalea da eta zaletasun horretatik artista handiak jaio dira. Hurrengo orrietan ikusiko dituzue adibide batzuek, baina asko dira hortik kanpo ere sormen lan bikainak egiten dituztenak. Eta ez abesti formatuan bakarrik, baizik eta musika beste eremu batzuetara eramaten ere.

Maite Arroitauregik (Mursego) eta Haritz Letek (Cobra, Kokein), adibidez, zinearen munduan bidea egiten dihardute. Arroitauregik 'La consagracion de la primavera' (Beatriz Vacarekin), eta 'Irati' eta 'Black and Beltza II. Ainhua' pelikuletarako (Arantzazu Callejarekin) musika sortu du, eta Lete azken bi pelikuletako soinuarekin lanean ibili da.

'Black and Beltza II. Ainhua' filmaren kasuan, gainera, filma aurkeztu baino lehenago soinu banda salgai jarri zuen Elkar argitaletxeak bi formatutan (biniloan, bi LPtan; eta bi CDtan). Bertan, Arroitauregik sortutako soinu bandaz gain, beste hogeitasei talde ingururen lanak daude entzungai: Kortatu, The Pogues, RIP, Cicatriz, Mikel Laboa eta Imanol, besteak beste.



## Txoriak bakarrik egiten du hegan orain

**Bixente Martinez** gitarra-joleak bere lehen bakar-kako lana aurkeztu zuen 2021. urteko udazkenean: 'Txoria buruan eta ibili munduan'. Diskoak Oskorriren errepertorioa du oinarri, baina musikari eibartarrak bere barruko esentziarekin biluztu ditu abestiak, ondoren modu libre eta berrian birmoldatuak izateko.

Bakarrik, baina gitarra lagun, loopak eta bestelako efektu ezberdinak sortu ditu Martinezek, gitarra ezberdinak erabiliz (akustikoak eta elektrikoak). "2020ko itxialdi gogorreko egunetan sortu zen ideia. Garai horretan gitarra hartu eta aire eta doinu ezberdinekin jolasten hasi nintzen, eta modu naturalean kantu hauek heldu ziren nire eskuetara, apur bat kasualitatez", musikariak azaltzen duenez.

Diskoa han eta hemen aurkeztu du Martinezek, eta oraingoan jaioterria bisitatzea tokatuko zaio. Gitarra-jolea gaur bertan arituko da zuzenean, 19:00etan, Coliseoan. Eibartarra Haatik konpainiako dantzariekin batera arituko da, Oskorriren kantuei bizi berria emanez.

Sarreraren prezioa 10 eurokoa izango da (7 euro Coliseo Laguna txartela dutenentzat).



## Iraganeko oihartzunak atzematen dituzten ekografiak

Aurten 25 urte bete dira **Lorelei** musika taldeak 'Bada hiri gorri bat' diskoa kaleratu zuela. Bi urte geroago etorri zen 'Tatuatu zenidan zerua' eta, ondoren, isiltasuna. Hain isila ez den isiltasuna, Loreleiren musikak soinua egiten jarraitu baitu zaleen belarrietan eta oroitzapenean.

2019an taula gainera igo ziren berriro eta, besteak beste, emanaldi hunkigarria eskaini zuten Coliseoan. Pandemiak, ostera, beste plan batzuk zituen eta bira bertan behera laga behar izan zuten. Hala ere, gauza berriak egiteko hazia erein zuen itzulera horrek.

Orain, hiru urte geroago, 'Ekografiak' diskoa kaleratu du Mikel Gorosabel 'Norton' eta Asier Serranok osatzen duten Lorelei taldeak (Antxon Sarasua baxu-jolea eta Loiola Madera bateria-jolea izan dituzte lagun oraingoan).

Iraganera begira jarrita eta lehengo oihartzun horiek gaur egun duten eraginean hausnartzuz sortu du diskoa bikoteak. "Diskoan sentimendu unibertsalak jarri nahi izan ditugu, baina abiapuntu intimotik", esan digu Asier Serranok.





## Kokein proposamen atomikoarekin datorkigu

Urrian Chill Mafia talde nafarreko Kiliki Frexko-ekin elkarlanean egindako 'Ispiluari begiratzean' abestiaren bideoklipa argitaratu ondoren, 'Atomika' izenburua duen disko berria kaleratu berri du **Kokein** musika taldeak.

Eibartarren zazpigarren lana da eta zortzi abestik osatzen dute. Bestetik, diskoaren azala eta diseinu Ritxi Ostarizek egin du.

Azken urteotako bideari jarraituz, Kokeinek ez du rock kutsua galdu, baina doinu dantzagarriagoak eskaintzen ditu lan berri honetan. Gainera, Kiliki Frexko ez da 'Atomika' diskoa egiteko izan duten bidelagun bakarra, Miren Narbaiza eibartarrak ere bere ahotsa eskaini baitu 'Eztanda' izeneko abestirako.

'Atomika' abenduaren 2an egongo da kalean (CD eta LP formatuetan) eta Durangoko Azokan erosteko moduan egongo da. Gainera, Kokeinek zuzeneko eskainiko du Ahotsenean (Plateruenean), abenduaren 9an, 18:00etatik 18:30era.

Lan berria argitaratu ondoren, 2023. urtean bira egingo du talde eibartarrak zuzenekoak eskaintzeko.



## Orekaren bila dabilen ekilibrista

"Bizi izandako krisialdi bati eta pandemiak sortutako egoerari erantzun sortzaile eta bizizale bat eman nahi izan nien", azaldu zuen **Markos Untzetak** 'Ekilibrista' disko berriaren aurkezpenean. Diskoak hamar abesti ditu eta blues, country eta pop-rock amerikarraren bidetik, soiltasuna eta gardentasuna lortu nahi izan ditu musikari eibartarrak.

'Ekilibrista' Untzetaren seigarren diskoa da eta, oraingoan ere, Gaztelupeko Hotsakekin ekoiztu du lana. Gainera, aurreko diskoan gertatu bezala, Zumaian bizi den Giovanni Zanon izan du bidelagun, berarekin landu baititu kantuen oinarriak eta moldaketak. Orain dela urtebete maketa grabatu zuten Haritz Harregiren estudioan, eta hori izan zuten oinarri, gero Karlos Aranzegiren eta Fernando Neiraren (baxu elektrikoa eta kontrabaxua) ekarpenak jasotzeko.

Oraindik zehaztu gabe badago ere, Markos Untzetak lana zuzenean aurkezteko asmoa du. Horretarako, Neira eta Aranzegiren ordeiz, Eibarren bizi den Walter Tuzzeo baxu-jole eibartarrak eta Iñaki Ortega bateria-joleak joko dute kontzertuetan.





## Arabako lautadatik datorren ahots indartsua

**Miren Narbaizak** orain dela urte batzuk laga zuen Eibar menditsua Gasteiz lauarengatik. Orain dela urte batzuk laga zuen, baita ere, Napoka Iria proiektua eta bakarkako bideari eman zion hasiera MICE proiektuarekin. Bakarka baina ez bakarrik, Joseba Baleztena musikari eta ekoizlea bidelagun baitu sormenez jositako bide horretan.

‘Lautada’ da MICEk kaleratu duen disko berria, Arabako paisaiari lotuta ondutako lana. Gakobeltz estudioan egin du grabazioa eta musikari askoren ekarpena izan du diskoak, lanari geruza ugari emanez.

‘Lautada’ disko digitala micenaiz.bandcamp.com webgunean erosi daiteke, baina badago fisikoan eskuratzeko aukera ere. Izan ere, biniloan kaleratu du mimoz egindako diskoa.

MICEren lan berria Durangoko Azokan erosteko aukera egongo da eta, horrez gain, Ahotsenean zuzenean joko du, Kokeinek egingo duen egun berean, abenduaren 9an, 20:20etik 20:50era. Hori bai, Narbaizak Berriari esan dionez, nobedade bezala, gitarra barik arituko da disko berriko kantuak aurkezten.




## Kantu indartsu eta xamurrak, beti bihotzetik

**SuTaGar** taldeak estudioko 12. lana kaleratu du: ‘Alarma’. Sei urte pasa dira ‘Maitasunari pasioa’ lana kaleratu zutenetik eta zaleek gogotsu hartu dute proposamen berria. Berria da, baina Euskal Herriak eman duen heavy talde handienaren esentzia du, kantu indartsu eta xamurrekin, eurek dioten bezala.

‘Alarma’ indartsu hasten da eta, Aitor Gorosabelek NAIZ Irratian esan zuenez, “disko honetan badaude kantuak trash, hard rock eta beste mota bateko abestiak gogorarazi ditzaketenak”.

Ohikoa denez, diskoa Lorentzo Recordsen grabatu dute Aitor Ariño SuTaGarren zuzeneko teknikariarekin. Ohikoa ez dena, ostera, Xabi Bastidak abestien letrak egitea da eta trebetasuna erakutsi du ‘Erraie-tan betirako’ kantuan. Gainera, Iker Rocandiok ere hiru abestitarako letrak idatzi ditu, memoria historikoa landuz.

SuTaGarren lan berria dagoeneko salgai dago Gara eta Naizen bitartez (14 eurotan) azaroaren 27ra arte, eta abenduaren 6an plataforma digitaletan egongo da eskuragai.





Sasoian sasoikoa. RAMON BEITIA





**Ondo pasa  
Sanandresetan!**

T. Etxebarria, 8

**BAR BUENOS AIRES**

Untzaga, 5

Zatuz gure sukaldetik ateratzen diren platerak eta momentuan egindako pintxo bereziak dastatzera, espazio eta giro atseginean, eta jatón-deltura ezberdinetako ardoez lagunduta.

Bidebarrieta 39an  
URKIZUO PARKEAREN ONDOAN

**baratxe**

Tel. 943 84 55 03

943 700 119 ipursagardotegia@hotmail.com  
664 607 440

**ipur**  
Otaola, 5

Eguneko menuak / Asteburuko menu berezia  
Sagardotegi-menuak / Kartak / Bokatak / Razioak  
Pintxoak eta gure txapel bereziak (hamburgesak)

**OILASKOAK ENKARGUZ**

ERAMATEKO: 10'50€ / patatekin 12€ / patata eta piperekin 13€  
patata, piperekin eta entsaladarekin 14€ **BERTAN JATEKO:** orokor 16€

**zai-zoi**  
EIBAR LABADERUA

**KM.0  
TABERNA**

B. Sarasketa, 1 -behea-

**LUSAI**

ARMOZAU, BAZKALDU,  
MERTENDAU ETA AFALDU LUSAI

@LUSATEIBAR 632 987 320 ERREBAL PLAZIA

**Ondo pasa  
San Andres  
jaietan!!!**

*eta ondo baino  
kobeto gurekin  
Untzaga, San*

**KATU**  
k a l e

## Eibar - Complutense partiduak giro berezia biziko du

Etzi arratsaldeko 16:00etan hasita Unben jokatu den Ohorezko Mailako Eibar Rugby Taldea eta Madrilgo Complutense Cisnerosen arteko partiduak giro berezia izango du. Eguerdiko 13:00etatik aurrera Unbera igoko direnzentzako jateko eta edateko aukera izango da Guridi tabernan, "txorizoa, salda eta patata-tortilla protagonista izango dituena". Musika-giroan egingo dute arratsalde-pasa partidua hasi aurretik, 15:00etan Unbera igotzeko autobusa hartzeko. Antolatuzaileek diotenez, "autobusa doan izango da".



## Asola Berriko hainbat ordezkari sarituta Euskal Herriko 32. hiru-txirlo txapelketan

Aramaioko Etxaguen bolatokia jokatu txapelketa horretako azken jardunaldian 73 bolarik hartu zuten parte eta, berdinketa-hausteen ondoren, baita azken sailkapenak osatu ere. Sailkapen nagusian Markina-Xemeingo Jose Angel Ogizak jantzi zuen txapela, 28 txirlorekin, eta atzetik Santos Muñoz geratu zen (25ekin), Sebastian Aranzabal eta Bittor Astigarraga eibartarra (23rekin) hirugarren geratzen ziren bitartean. Asola Berriko ordezkari

dagokienez, Enara Montiel nagusitu zen emakumezkoetan, Kepa Rodriguez jubenetan eta Ander Unamuno alebinetan. Binakakoan, azkenean Bittor biak osatutakoa (Astigarraga eta Ugarteburu) hirugarren geratu zen. Eta txapelketa horretatik kanpo, Garikoitz Rodriguez Gipuzkoako aurtengo bolari onenaren saria bereganatu zuen. **Goiko argazkietan Enara Montiel eta Garikoitz Rodriguez eibartarrak irabazitako sariek.**

## Eibar FT-ko lehen taldea Kopa ahaztu eta lidergoari eustera Unben

Martitzenean CD Teneriferekin 2-1 galduta, bere multzoan liderra den Eibar FT Erreginaren Kopatik

kanpo geratu zen final-hamaseigarrenetan. Irletako taldea lehen zatiko 15. minutuan aurreratu zen



markagailuan eta 55. minutuan aldea handitu zuen, handik bi minutura eibartarrek euren gola sartu bazuten ere, Paula Sanchezek penaltiz egindakoari esker. Torneo hori ahaztu eta Federazioko 1. Mailako bere multzoko liderrak ligako hamargarren jardunaldiko partiduari egingo dio aurre domekan, goizeko 11:00etan, erdialdean dagoen Unben SA AEM taldea hartuta. Sei garaipen eta hiru berdinketekin eibartarrak sailkapeneko gorenean jarraitzen dute, igoeraren bila urrats sendoak emanez.

## Gimnasia erritmikako S. Andres Torneoa jokatu da Ipuruan bihar

Ipurua klubak antolatzen duen San Andres Torneorearen 22. edizioa izango da jokoan bihar, goiz eta arratsaldeko saioetan banatuta. Azken bi urteotan ezin bazen egin, gogotsu hartuko dute zaletuek biharko ikuskizun paregabea. Goizean 11:00etan hasiko da lehia, bakarkako txandarekin, eta arratsaldean taldeen txanda izango da. Goizekoak 50 gimnasten lanak erakutsiko ditu, Ipuruako sei euren artean: Ane San Martin jubenil base mailan; Emile Zamakola, Haizeder Arguiz eta Maialen Apraiz kadete basean; eta Arrate Baskaran eta Indira del Pino seniorretan. Arratsaldean 30 taldek hartuko dute parte, Ipuruako jubenil basea tartean. San Andres



Torneoa abenduaren 14an Zaragozan jokatu den Kopa txapelketa-

rako prestaketa bezala hartuko dute bertan izango diren Arguiz eta San Martinek.

Ipuruako jubenilek, bestalde, denboraldia amaituko dute zapatu honetan, hilaren 11n Jerezen jokatu Espainiako taldekako txapelketan, 130 talderen artean, hamargarren postuan sailkatu eta gero (euskaldun onenak izan ziren). Horrez aparte, txapeldun izan ziren Euskalgym-ean eta urrezkoa lortu zuten Gipuzkoako txapelketan. Azkenik, aurreko asteburuan Iruñean jokatu Nafarroa Foru Komunitatea Sarian, Haizeder Arguizek txapela jantzi zuen kadeteetan, eibartarren ohorezko beste postu batzuekin batera.

## 128 korrikalari helmugaratu ziren Asier Cuevas herri-lasterketan



Eguraldiak laguntza askorik eskaini ez zuen herri-lasterketaren IX. edizioan 128 lagun helmugaratu ziren azkenean, "izena emanda 151 apuntatuta bazeuden ere". Emakumezkoetan Idoia Nogalesek hasieratik hartu zuen burua eta postu horri eutsi zion amaierara arte. 29 minutu eta 15 segundo behar izan zituen proba amaitzeko; minutu bat eta 40 segundora heldu ziren, elkarrekin, Aitziber Urkiola bigarren postuan eta Izaskun Aizpiri hirugarrenean.

Isabel Etxaniz lehen eibartarra izan zen eta Esther Velasco lehen beterranoa. Gizonezkoen mailan Kalaka Gonzalez izan zen lehena helmugaratzen, 25 minutu eta 28 segundoko denborarekin, 12 segundora sartu zen Iosu Elola eta ia minutura heldu zen Ugaitz Gartziaren aurretik. Arlo horretan Markel Gutierrez izan zen lehen eibartarra, Gorka Cebrian lehen beterranoa eta Manex Gisaso la lehen juniorra. Azken lasterketa hori bigarren itzulian erabaki zen.



www.publiresa.com  
publiresa@publiresa.com  
943 701 497 / 615 799 419  
Armagin, 3-5 behea

merchandising  
serigrafia  
lanerako erropia




**Helvetia Seguros**  
Bidebarrieta, 20 -  
solainuartea ezk.  
644 71 47 87  
g.errekalde@gmail.com

**Gorka Errekalde Cid**  
FO 4000760 zenbakidun aseguru-agente eskusiboa

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

6		9		1	8			
7	1		5	9				
5		4			3			
2							8	
1		5				4		7
	4							9
			8			9		6
				7	6		1	2
			3	2		8		5




soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	7		9					
	4	1	3					
5	2		1	8				
1	3						6	
2	8		6	3			9	1
	6						5	2
			4	2			3	7
			7		6	2		
			6				1	

soluzioa



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**





**Ondo pasa  
Sanandresetan!**

**AMETSA**  
**Gin Bar**

Jaietan gozatu  
\*Ametsa Gin Bar\*  
erara

**B** *— casa —*  
**ANAKA**  
**.BAR.**  
Calbeton, 26

Ondo pasa  
Sanandresak! **GOZATU  
EGIZUZ  
GUREKIN!!!**

  
*Kili Kili*

GOSARIAK / PINTXOAK / EGUNEKO MENUAK  
AFARIAK / MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK...

☎ 943 20 24 01 *Ibarkurutze, 12*

Toribio Etxebarria, 18 - 1.

 **CASINO  
ARTISTA  
EIBARRES**

**Enkarguak  
hartzen  
dira**

Telefona: 943 20 71 90

  
**BAR  
EZDOK  
BERRIA**

Toribio Etxebarria, 18

*ne · Bontak · ... urikin San Ch  
· Kuntak · ... Gorrin  
urikin San Ch · ...  
Hamburgiak · ... urikin San Ch  
Pintxoak · Kuntak · Bontak ·  
... Opertu gurkin San Andresak!*

**Trinkete**  
EIBAR 1957

Erebal kalea 24 · 943 70 13 23


  
**Su  
Beroa**

  
Bista Eder, 11  
Tel. 943 47 77 79  
suberoataberna@gmail.com


**BAKO LEKU** Ardotegia



Ego Gain 2-4 Tel. 670 55 67 56



# Egitarau betea antolatu du Eibarko Euskalgintzak Euskararen Eguna ospatzeko



Hurrengo asteko zapatuan ospatuko dugu Eibarko euskaltzaleok Euskararen Eguna. Aurretik euskarari hauspoa eman dioten eta euskara maite dugunon artean ilusioa piztu duten bi gertaera izan ditugu: batetik, bezperan (abenduak 2) amaituko den Euskaraldia, ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko hamabost egunez egindako ariketa soziala, eta, bestetik, orain dela egun gutxi jakin dugu antzinaroko euskaraz idatzitako testu zaharrena aurkitu dutela Nafarroan, Irulegi mendian. Ilusio horri eutsiz, ekitaldiz lepo datorkigun Euskararen Eguna ospatuko dugu eibartarrok abenduaren 3an.

**E**ta ilusio-euste horretan zeresan handia izan du Eibarko gazteriak. Boteprontuan euskeraz! talde sortu berriak, euskalgintzaren proposamenarekin bat egiteaz gain, ekarpen ederra egin du-eta: “Gazteak euskalgintzaren mahaira eta mahai horretatik antolatzen diren ekin-tzetara nola erakarri; horixe izan da azkeneko urteotako kezka eta erronka, eta pozgarria da gazteak eurak hurbildu izana, horrelako gogo eta asmoekin”, diote euskalgintzatik.

Abenduaren 2an hasiko dira Euskararen Egunaren inguruko ekintzak. Eibarren AKEBAIren enkarguz, Soziolinguistika klusterrekoek Eibarko kale-erabileraren emaitzak aurkeztuko dituzte Errebaleko hitzaldi gelan arratsaldeko 18:00etatik aurrera. “Datozen urteetan indarrak non jarri behar ditugun erabakitzen lagunduko digute emaitzek eta horien inter-

pretazioak”, antolatzailleen hitzetan. Eta, behin hitzaldia amaituta, aisialdirako tartea: “Karropoteoa egingo da 19:30etik aurrera”.

## “Utzi arrastoa” horma-irudia

Zapatuan bertan, goizeko 09:00etan hasita, horma-irudi berezia egingo da Bista Eder kaleko Beleko tabernaren ondoko horman. Eibarko Udalaren enkarguz, Mikel Larrañaga bergararrak Eibar BHIko Batxilergo Artistikoko ikasleekin batera diseinatutako irudia osatuko da: “Herritar guztiak daude gonbidatuta margoketa-lanean parte hartzera. Erabat irekia izango da. Ezin dugu aurreratu zein irudi agertuko den, aurrerago, Eibarren, euskararen inguruan gertatuko den gauza berezi batekin lotura izango duela, besterik ez”.

## Kalejira herrikoia

Bien bitartean, goizeko 11:00etatik aurrera jolasak egingo dira



Eguerdiko 12:00etan kalejira herrikoiak bere ibilbideari ekingo dio, Untzagatik hasita.

umeentzat Untzagan, eta eguerdiko 12:00etan kalejira herrikoiak bere ibilbideari ekingo dio. Untzagan hasiko da eta handik, "eskailera mekanikoak hartuta, Bista Ederrera joango gara. Inauguratu berri egongo den horma-irudiaren aurrean egingo dugu lehenengo geldialdia. Han pare bat kantu abestu eta gero Ifar kaletik behera Katu Kale inguruan geldituko gara berriro. Anbulategiko parkean ere geldialdia egingo dugu; handik Toribio Etxebarrian sartuko gara eta Depor parean egingo dugu azkenaurreko geldialdia. Handik Untzagara eta



bertan amaituko dugu. Ibilbidean era guztietako abestiak entzungo ditugu, tradizionalak eta modernoak, heldu, gazte zein umeentzat".

## Abenduaren Zan hasiko dira Euskararen Egunaren inguruko ekintzak



● Nexa Autocolor  
 ● Pintura industrialia  
 ● 3M produktuen banatzailea

**PINTURAS  
ARRATE, S.L.**

**MATSARIA, 34 behea - A**  
 info@pinturasarrate.com  
 Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89


**ATEVN**

EIBAR  
 Romualdo Galdos, 12  
 943 206194

MARKINA-XEMEN  
 Artibai, 3 94 6167669

ONDARROA  
 Iparragirre, 10 94 6833523

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**



Orain dela 500 urte euskaraz idatzitako poema-zati bat erabili da aurtengo Euskararen Eguneko pankarta egiteko.

Eguraldiak laguntzen badu, harmailen aldean amaituko da, eta, euria egingo balu, bestekaldean egongo den karpa barruan. Kalejirarekin amaitzeko, bertaratutako guztiek elkarrekin abesteko eta dantzatzeko aukera izango dute Irrien Lagunak kantu ezagunaren doinuak lagunduta. QR kodearen bidez ikus dezakezue horretarako propio sortutako koreografia.

### Herri-bazkaria eta bazkaloste oparoa

Ustekaberen kalejira herrikoiairen ostean herri-bazkaria egingo da Untzagako karpan. “Boteprontuan, euskeraz! taldeak antolatuta du bazkaria Bizimiña elkartearekin batera. Eguaztenaz gozotzek Guridi eta Depor tabernetan daude tike-tak salgai (17€ ez prekarizatuak, 14€ prekarizatuak), eta salmentamahaia ere jarriko da kalean, gaur, barixakua, 20:00etatik 21:00etara, eta bihar, zapatua, 13:00etik 14:00etara”. Bapo bazkaldu eta gero, bazkaloste oparoaz gozatuko dute bazkarira joandakoek: “bingo musikatua egingo dugu eta egu-

na ganoraz amaitzeko, iluntzeko 21:30etik aurrera erromeria izango dugu sMePebo5t taldearekin”.

### Euskal testu zaharra pankartan

Aurten Euskalgintzako mahaiak ez du aparteko goibururik aukeratu Euskararen Egunerako, baina eguna iragartzeko egindako pankarta berezia da: “Eibarko Euskararen Eguna iragartzeaz gainera, pankartaren hondoan azaltzen den testu zatia berezia da. Ia duela 500 urte euskaraz idatzitako maitasun poema baten zatitxo bat dago letra gorri. Oñatiko Artxibo Historikoan aurkitu zuten orain dela bi urte Azkoitiko notario-protokolo dokumentu baten bazterrean idatzita”.

“Eibarko euskalzale guztiei dei egin nahi diegu; irten gaitezen kalera eta ospa dezagun guztiok elkarrekin Euskararen Eguna; baina ez dadila ospakizun-egun soilean gelditu; harago joan behar dugu, eta Eibarren euskaraz bizi nahi dugula ozen aldarrikatu eta exijitu behar dugu. Gure hizkuntzak gu guztion babesa eta hauspoa behar du-eta, inoiz baino gehiago”.

Koreografia ikasteko bideoa



**Zapatuan bertan,  
goizeko 09:00etan  
hasita, horma-irudi  
berezia egingo da  
Bista Eder kaleko  
Beleko tabernaren  
ondoko horman**

**Ustekaberen kalejira  
herrikoiairen ostean  
herri-bazkaria egingo  
da Untzagako karpan**

**Arregi - Dominguez**  
Bidebarrieta, 4 Ego-Gain, 9  
943 201138 943 203209  
Mariskoak / Arrain freskoa/izoztua  
Enkarguak / Ondarruko arraina

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus





# Ondo pasa Sanandresetan!



**GASTROTEKA BOSSA**

Ego gain, z/g  
Ongi etorriak zuen etxera!!  
943 20 67 53



URKIZU, 22 943128086

*Aguñaspí*

**MENU BEREZIAK ENKARGUZ**  
Plater konbinatuak, Razioak,  
Bokatak, Hanburgesak

Asargunetik 07.00€tik aurreratik 09.00€tik



**Akhara**

Urdazubi Etxe, 101  
9431043782



**Sokoa Pub**



**GORA GURIDI SAN ANDRES!**



**HIRUROK BRASS**

1200 etekara  
produktu 300

ostegunetik  
igandera  
ERREKATXU, 1  
19:30etik  
23:30era

NEW A DOMICILIO & TAKE AWAY  
T. 943 56 72 06



**Euskenaz primeran!**

**VII. GILDA LEHIAKETA EIBARREN**

ABENDUAK

**13**  
**14**  
**15**



**TABERNETZAT SARIAK**

**1**

**HERRITARREK AUKERATUTAKOIA 150€**

TABERNETAN BOZKATZEKO KUTXAK ETA ORRIAK EGONCO DIRA

**2**

**EPAIMAHAIAREN SARIA: TRADIZIONALA: 150€ BERRITZAILEA: 150€**

EPAIMAHAIKIDEAK: MIREIA ALONSO JOSU MUGERZA RUBEN ETXANIZ

BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN BEZEROEN ARTEAN ASTEBURUKO EGONALDIA ZOZKETATUKO DA BI LAGUNTZATZAT.

ANTOLATZAILA  
**eta kitto!**  
euskarako elkartea

LAGUNTZAILEAK:



**TABERNAK**  
ADUINASPÍ - AMETSA - ARKUPÉ - ASTELENA - BACOLEKU ECO GAIN - BACOLEKU URKIZU - BARATZE - BARDINAPE BERRIA - BOSSA - CHIC - GUBIK - KONTEK - KOSKOR - KULTU - SLOW - SU BEROA - TRINKETE



## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **26an:** 19:45, 22:30
- **27an:** 20:00
- **28an:** 20:30

#### “La maternal”

Zuzendaria: Pilar Palomero



**DRAMA.** Amatasuna eta nerabezeroaren inguruan. Haurdun dagoen 14 urteko neska bat protagonista.

### 2 ARETOA

- **26an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **27an:** 17:00, 20:00
- **28an:** 20:30

#### “Asbestos”

Zuzendaria: Rodrigo Sorogoyen



**THRILLER.** Nekazal munduan girotutako drama. Galiziara joandako Frantziako bikote baten eta bertako en artean.

### ANTZOKIA

- **26an:** 17:00 (2), 19:45, 22:30
- **27an:** 17:00 (2 Aretoa), 20:00
- **28an:** 20:30

#### “Historias para no contar”

Zuzendaria: Cesc Gay



**KOMEDIA.** Erabaki absurdoekin hornitutako bost istorio, gutako bakoitzaren burua isladatuta ikusi genezakeen egoeretan.

### ANTZOKIA

- **26an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **27an:** 17:00

#### “Reyes contra Santa”

Zuzendaria: Paco Caballero



**KOMEDIA.** Gabon jaietan girotutako istorioa. Errege Magoek Santarekin hasiko dute borroka protagonismoaren bila.


## BENICOBA

etxeko tresnak



Ondo pasa  
SAN  
ANDRESAK!

**Juan  
Gisasola  
12-14  
Tel.  
943 203902**



LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

*enkarquak etxera*

**LORADENDA**

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29



• **tartak**

• **enkarquak  
etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

# Azaroak 25/Abenduak 1

## BARIXAKUA 25

### MUSIKA

**17:30** Bixente Martinez: "Txoria buruan eta ibili munduan" diskoaren aurkezpen-kontzertua. Coliseo.

### MANIFESTAZIOA

**19:00** Indarkeria Matxistaren Aurkako Manifestazioa. Matraka eta Nalua taldeek antolatuta. Azken Ostiraleko ekitaldiak bat egingo du. Untzaga.

## ZAPATUA 26

### TXISTORRAREN EGUNA

**09:00/21:00** XVIII. Txistorraren Eguna: pintxoak, erakustaldiak, musika... Untzaga.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipuruia kirolegia.

### ZAPATUKO IPUINA

**18:00** "Ama, kontaidazu berriro" ipuin kontaketa musikatua (Ameli eta Xirrikituen jostunak). Portalea.

### POESIA

**18:00** Blanca Sarasuak "No estoy de acuerdo" poemarioa aurkeztuko du. Itzamna akademia.

### MUSIKA

**19:00** DJ Gorka Perez. Erreal Plazia.



## DOMEKA 27

### EXFIBAR

**10:30/13:30** Exfibar 2022-LII. Seilu erakusketaren posta-marka. Portalea.

### SANANDRESAK

**11:00/13:30** XXIX. Bakailao txapelketa. San Andres sari nagusia. Untzaga.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30** 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipuruia kirolegia.

### MUSIKA

**17:45/19:45** Patinatzera joateko aukera. Ipuruia kirolegia.

## ASTELEHENA 28

### TAILERRA

**16:30/18:00** "La soledad no deseada: reflexiones sobre una realidad invisible" (Adindu). Beheko Tokia.

## MARTITZENA 29

### TAILERRA

**17:00/19:30** Emakumeentzat kulturarteko sukaldaritza saioa: Afganistango platera. Portalea.

### DOKUMENTALA

**17:30/19:00** "Indarkeria matxisten biktimen ahotsak: memoria, erreparazioa eta aitortza" dokumentalaren emanaldia eta solasaldia. Portalea.

## SANANDRESAK

**19:30** Jaixak Herrixak Herrixandakoren barra zabaltzea.

**20:30** Herri-argazkia eta ElektroPottotte elektrotzaranga.

**22:30** Erromeria: Altxa Porru! Untzagako karpa.

## EGUAZTENA 30

### SAN ANDRES EGUNA

**09:30** XLIII. San Andres nekazal azokaren epai-mahaia lanean hastea. Untzaga eta Txaltxa Zelai.

**11:30** Usartza txistulari bandaren kalejira.

**12:00** Aizkolarien txapelketa bikoteka.

Toribio Etxebarria.

**12:00** Bertsolariak, trikitilariak eta kalejira.

**12:30** Plazara Dantzara erromeria, Kezka dantza taldearekin eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin. Untzaga.

**13:00** San Andres lehiaketetako sariak banatzea. Untzaga.

**18:00** Plazara Dantzara erromeria Kezka dantza taldearekin. Untzaga.

### GAZTA-LORAK

**13:30/15:30** Gazta-kutiziak, Santiago Mohedanorekin. Ametsa tabernako terraza.

## EGUNA 1

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Gipuzkoako balletaren hurbilketa", Iratxe de Aranzibiaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

### AURKEZPENA

**19:00** "Eskubaloia Eibarren" dokumentala. Coliseo.

## ERAKUSKETAK

### Domekara arte:

- "BILAKETA II" Cristina Chiquin argazki-kazetariaren lanak. (Topalekua).

### Azaroaren 30era arte:

- PILAR AGUAYOren argazkiak. (Depor taberna).  
- ESTRELLA TARDIOren argazkiak. (Portalea taberna).

### Abenduaren 4ra arte:

- J.D. ARRATE foball taldeari eskainita (Peña Manix). (Untzagako jubilatutako etxea).  
Azaroaren 27tik:  
- EXFIBAR 2022-LII. Seilu erakusketa. (Portalea).

### Abenduaren 11ra arte:

- "EIBAR ORGANOZ BLAI". (Armagintzaren Museoa).

### Abenduaren 18ra arte:

- JUAN SAN MARTINen omenezkoa. (Eibarko Liburutegia).  
Azaroaren 29tik:  
- CIMASUB-era aurkeztutako argazki onenak. (Topalekua).

### Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Museoa).

## Eskualdeko Agenda

### ELGOIBAR

#### KONTZERTUA

**25ean (barixakua)**

Herriko Antzokia / **19:00**  
El Drogas.

### ERMUA

#### ANTZERKIA

**26an (zapateria)**

Ermua Antzokia / **17:00**  
"Eco". Ymedio Teatro.



**Vicente  
Alija Lopez**

2022/11/20



**DENON SAHATSA  
- ELKARTEKO LAGUNAK -**

**Pedro Maria  
Lecea Churruca "Bizkai"**

2022/11/19



ESKERRIK ASKO  
une latz hauetan gurekin  
egon zareten lagun eta  
familiako guztioi.

**Ez zaitugu ahaztuko  
- ETXEKOAK -**



**Jose Antonio  
Narbaiza Mandiola**

2022/11/15



Zu joan zara,  
baina zureganako  
gure maitasuna ez.  
Beti egongo zara  
gure artean.

**- ETXEKOAK -**



**Jose Antonio  
Furundarena Galzakorta**

2022/11/17



**Betirako  
gure bihotzean**

**- ETXEKOAK -**

**Javier  
Usobiaga Barrenechea**

2022/11/19



ESKERRIK ASKO  
une latz hauetan gurekin  
egon zareten lagun eta  
familiako guztioi.



**Ez zaitugu ahaztuko  
- ETXEKOAK -**



**Roberto  
Isasi Gisasola**

**2. URTEURRENA  
2020/11/27**



**Gurekin beti  
hemendik eta  
izarretaraino**

**- ETXEKOAK -**

688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **UNAX!** San Andres egunian 5 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu dakazun bizipozarekin. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **BEÑAT**, atzo 13 urte bete zenuz-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **NAIA**. Aitxitxa, amama eta Zumaren partez!



Zorionak, **AIZEA** Barrutia (12 urte beteta hillaren 13an) eta **ANE** Artetxe (6 urte San Andres egunian). Zeiñen ondo konpontzen diran lehengusiñak! Etxekuen partez.



Zorionak, **MADDI** eta **JARE!!!!** Eguaztenian 10 urte egin zenuz-eta. Musu pillo bat etxeko guztion partetik. Maite zaittuegu.

**Javi Usobiaga Barrenechea**

2022/11/19

**Jardifetako zure betiko lagunak**

- Joxe, Luismi, Rober, Joseba -

**FUNEUSKADI**  
Grupo Anónima

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO EREMITORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko Ilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ernuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan. Erreferentziak. 667060292.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai erdigunetik gertu. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin), 634430647.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 637222318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarak egiteko. 624869718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarak egiteko. 631750397.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 631341616.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 624579899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaroarekin) eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientziarekin. 632415374.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. 643933039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 631363908.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioarekin. 688779828.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Sozio-sanitario ikastaroarekin. Esperientzia handia. 642709219. Angel.

## 4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da. 6888667169.
- Pertsona behar da etxea garbitzeko. 680949663.
- Taxi-lizentzia traspasatzen da. Autoa Eibarren du. 606848794.
- Harakina behar da Soraluzen, haragia zatikatzen, haragi-produktu deribatuarak egiten eta bezeroaren arretan esperientzia duena. Bidali curriculum: Whatsapp bidez, 641215470, edo telefonoz deitu, 943 75 12 49.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskeraek

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinu klase partikularrak ematen dituenbaten bila nabil. 616479840.

## 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Aulkia opari. Prezioa adosteko. 667549101.
- Sofa salgai, camel kolorekoa. Berria dago. 1'78x0'82x0'95. Kulunkaulki (mezedora) vintage musutruk. 150 euro. 617224139.
- Mepamsa AEG salgai. 60x50. 30 euro. 652 72 25 38.
- Termo elektrikoa salgai. Fleck Duo-5 50 EU. 200 euro. 652 72 25 38.



# FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ane Mendiá  
970 kol. zkoa.



INDIBA TERAPIAK  
ARTIKULAZIO TENPORO-  
MANDIBULARREKO ARAZOAK  
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK  
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA  
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA  
OROKORREAN  
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE  
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20  
943 530642

[ane\\_mendia@hotmail.com](mailto:ane_mendia@hotmail.com)



BENETAKO ARTZAI GAZTA  
Zapore handiko kutixia

Gurea!


Zorionak eta urte berri on !



IDIAZABAL



ESKUNTZA





**EIBAR**

HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

**San Andres** jaietan

# IRRIBARRERIK POLITENA

erakutsi ezazu

- ◆ Odontologia orokorra
- ◆ Haur odontologia
- ◆ Hortz zuritzea eta estetika
- ◆ Ortodontzia
- ◆ Protesi finkoa eta kentzekoa
- ◆ Kirurgia eta inplanteak

📍 San Agustin Kalea, 4 behea ezkerrean  
20600 Eibar (Gipuzkoa)

943 537 076 · 688 884 808  
info@eibarclinicadental.com

